

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZUMAIAKO UDALA

Zumaiako Gaztegunea erabiltzeko udal ordenantzari behin betiko onarpena ematea.

Udalbatzak, 2026ko maiatzaren 28ko Ohiko Osoko bilkuran, Zumaiako Gaztegunea erabiltzeko Udal ordenantzari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Jendaurrean jartzeko epearen barruan alegaziorik aurkeztu ez denez (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 107. zk., 2026ko ekainaren 10ekoa), behin betiko bihurtu da, automatikoki, Zumaiako Gaztegunea erabiltzeko Udal ordenantzaren hasierako onarpenarako osoko bilkuraren erabakia. Erabaki horren testu osoa argitara ematen da, guztiek jakin dezaten eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, eta adierazten da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

Eta guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditza argitaratzen da hau. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Nahi izanez gero, beste edozein errekurtso ere aurkeztu daiteke.

Onartutako ordenantzaren testua honakoa da:

Zumaiako Gaztegunea erabiltzeko udal ordenantza

ATARIKOA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1 artikuluan arabera, udalerriak bere eskumen gisa gauzatuko du gazte politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea. Ondorioz, Zumaiako Udalak Gaztegunea erabiltzeko arau eta baldintza orokorrak ezarri ditu honako araudiaren bidez.

Horrek guztiak araua Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.1 artikuluan aurreikusitako erregulazio onaren printzipioekin bat egiten duela justifikatzen du, eta, horrenbestez, administrazio publikoek premiarenean, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioen arabera jarduteko duten betebeharra bete dela.

Era berean, une oro hartuko dira kontuan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarak Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta 2025ean onartutako Zumaiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantzan xedatutakoak.

Horiekin batera, aintzat hartuko dira udaletan eta oro har administrazioan euskararen erabilera arautzen duten 179/2019 eta 24/2024 Dekretuak, eta euskara bultzatzeko indarrean dauden plan estrategikoen arabera jokatu da.

AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

Aprobar definitivamente la ordenanza municipal para el uso del Gaztegune de Zumaia.

El Pleno de la Corporación, en sesión ordinaria celebrada con fecha 28 de mayo de 2026, acordó aprobar inicialmente la ordenanza municipal para el uso del Gaztegune de Zumaia.

No habiéndose presentado alegación alguna dentro del plazo de exposición pública, publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 107 de 10 de junio de 2026, queda automáticamente elevado a definitivo el Acuerdo plenario inicial aprobatorio, de la Ordenanza municipal para el uso del Gaztegune de Zumaia, cuyo texto íntegro se hace público, para su general conocimiento y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, señalando que la misma entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Lo que se publica para su general conocimiento y efectos, señalando que el presente acuerdo agota la vía administrativa y contra el mismo se podrá interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sin perjuicio de que se pueda interponer cualquier otro recurso que se tenga por conveniente.

El texto de la ordenanza aprobada es el siguiente:

Ordenanza municipal para el uso del Gaztegune de Zumaia

PRÉAMBULO

De conformidad con el artículo 17.1 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, el municipio ejercerá en todo caso como competencia propia la planificación, ordenación y gestión de políticas de juventud. En consecuencia, el Ayuntamiento de Zumaia mediante el presente reglamento establece las normas y condiciones generales de la utilización del Gaztegune.

Todo ello viene a justificar la adecuación de la norma a los principios de buena regulación previstos en el artículo 129.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, cumpliendo con ello la obligación de las Administraciones Públicas de actuar de acuerdo con los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia.

A su vez, se tendrá en cuenta en todo momento lo establecido en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de violencia machista contra las mujeres y la Ordenanza Municipal para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Zumaia aprobada en 2025.

Asimismo, se tendrán en cuenta los Decretos 179/2019 y 24/2024 que regulan el uso del euskera en los ayuntamientos y en la administración en general, y se actuará de acuerdo con los planes estratégicos vigentes para el impulso del euskera.

Amaitzeko, azpimarratu behar da beharrezkoa izango dela LOPIVI (8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osoki babestekoa) eta 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Nerabeena.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Gaztegunea Zumaiaiko nerabeei zuzendutako Udal zerbitzua da, zehazki 12-17 urte bitartekoei, Gipuzkoako Gaztematika haur eta gazteen prestakuntza sistemaren barruan, genero ikuspegia-ekin.

Nerabeek, gizarte hezitzaile lantalde baten bidelaguntzarekin, beren eskakizunak eta ekimenak sortu eta garatu ahal izateko elkargunea da.

Udalak nerabeen esku jartzen duen ekipamendua da, haien interesetan eta beharretan oinarritutako jarduera programa bat eskainiz. Horretarako, zenbait baliabide jarri ditu Gaztegunean (mahai jokoak, tailerrak, ping-pong mahaia, mahai futbola...).

Ordenantza honen xedea izango da Gaztegunearen erabilerrakoa araubide bat eta elkarbizitzarako tresna bat izatea.

2. artikulua. Ingurune seguru, babesle eta tratu onekoa.

Lopivik eta Haur eta nerabeen Legeak ezartzen dituzten betebeharrak erantzunez, Gaztematika Sareak Ingurune On erudia eta estrategia diseinatu du aisia hezigarriaren eremuan haur eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta ingurune seguru, babesleen eta tratu onekoen politika publikoak garatzeko, eta horretan oinarrituko da Zumaiaiko Gaztegunea.

II. KAPITULUA

GAZTEGUNEAREN DEFINIZIOA ETA HELBURUAK

3. artikulua. Gaztegunearen definizioa.

Zumaiaiko Udalak helburua du haurrei, nerabeei eta gazteei beren haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea, etapa horiek dituzten bi zentzuetan:

— Berezko balioa eta esanahia duen bizi etapa gisa; hau da, etapa honetan nor bere bizitzako protagonista da, herritartasun eskubideei lotuta dago eta ehundura sozialaren behar-beharrezko zati da.

— Gaitasun pertsonalak eta gizarte loturak landuz, ikasiz eta indartuz, pixkanakako emantzipazio prozesu bat izateko, hau da, heldutasunera arrakastaz eta gogobeteta igarotzeko aukera ematen duen etapa gisa. Izan ere, heldutasunean lortzen da erabakiak hartzeko eta erabaki horiek bizi proiektu pertsonal batean gauzatzeko autonomia maila handiena.

Zumaiaiko nerabeen beharretan oinarritutako zerbitzua eskaintzea da administrazioak bizi etapa horretan laguntzeko duen bidea.

Gainera, nerabezaroa, haurtzaroa eta gaztaroaren artean kokatua dagoen bizi etapa da. Horregatik garrantzitsua da bizi etapen arteko continuuma lantzea. Zumaiaiko Ludotekan egiten den lanaren jarraipena egingo da Gaztegune zerbitzuan.

Nerabezaroan, areagotu egiten da norbanakoek beren denborak eta espazioak dituztela sentitzeko duten beharra, beren parekoen arabera eta familiaren eta eskolaren espazioetatik eta denboretatik bereizita. Horregatik interesgarritzat jotzen da eskaintza egonkor bat ematea. Herritartasun aktiboranzko bidean gaitasun

Para terminar, hay que subrayar que será necesario tener en cuenta también la LOPIVI (Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y adolescencia frente a la violencia) y la Ley 2/2024, de 15 de febrero, de Infancia y adolescencia del País Vasco.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Finalidad.

Gaztegunea es un servicio municipal dirigido a adolescentes de Zumaia, concretamente a adolescentes de entre 12 y 17 años, dentro del marco del Sistema de Promoción infantil y Juvenil de Gipuzkoa Gaztematika, con perspectiva de género.

Es un punto de encuentro para que las personas adolescentes puedan crear y desarrollar sus demandas e iniciativas acompañadas de un equipo socioeducativo.

Se trata de un equipamiento que el Ayuntamiento pone a disposición de las personas adolescentes ofreciendo un programa de actividades centrado en sus intereses y necesidades y para las que ha instalado diversos recursos (juegos de mesa, talleres, ping-pong, fútbol...) en el Gaztegune.

La presente Ordenanza tendrá por objeto regular el uso del Gaztegune y servir de instrumento de convivencia.

Artículo 2. Un entorno seguro, protector y de buen trato.

En respuesta a las obligaciones que impone la Lopivi y la Ley de Infancia y Adolescencia, la Red Gaztematika ha diseñado el modelo y estrategia Ingurune On para la prevención de la violencia contra la infancia y la adolescencia en el ámbito ocio educativo y el desarrollo de políticas públicas de entornos seguros, protectores y de buen trato, en el que se basará el Gaztegune de Zumaia.

CAPÍTULO II

DEFINICIÓN DEL GAZTEGUNE Y OBJETIVOS

Artículo 3. Definición del Gaztegune.

El Ayuntamiento de Zumaia tiene como objetivo ofrecer a los niños, niñas, adolescentes y jóvenes una oportunidad estable y permanente de desarrollarse y disfrutar en su infancia, adolescencia y juventud, en los dos sentidos que tienen estas etapas:

— Como etapa vital con valor y significado propios, es decir, en la que cada cual es protagonista de su vida, está sujeto a derechos de ciudadanía y es parte imprescindible del tejido social.

— Trabajando, aprendiendo y fortaleciendo las capacidades personales y los vínculos sociales para tener un proceso de emancipación gradual, es decir, como etapa que permite pasar a la madurez con éxito y satisfacción. De hecho, es en la madurez cuando se alcanza el mayor grado de autonomía para tomar decisiones y llevarlas a cabo en un proyecto personal de vida.

Ofrecer un servicio basado en las necesidades de las personas adolescentes de Zumaia es el camino que tiene la administración para colaborar en esa etapa de vida.

Además, la adolescencia es una etapa vital situada entre la infancia y la juventud. Por eso es importante trabajar el continuum entre etapas vitales. Se realizará una continuación del trabajo que se realiza en la Ludoteca de Zumaia en el servicio Gaztegune.

En la adolescencia aumenta la necesidad de las personas de sentir que tienen sus tiempos y espacios, en función de sus iguales y diferenciados de los espacios y tiempos familiares y escolares. Por ello, se considera interesante ofrecer una oferta estable. En el camino hacia la ciudadanía activa se pretende fo-

pertsonalak eta gizarte loturak landuz, ikasiz eta indartuz nerabeek gizartearen duen lekua sustatu nahi da. Zerbitzuaren printzipio edo irizpideak dira berdintasuna, ekitatea, aniztasuna eta euskara. Proaktibitatea, hurbiltasuna, pertsonalizazioa, jarraipena eta prebentzioa kontuan hartuz, nerabeek dituzten beharrak ase nahi dira. Nerabeei entzun eta ulertzen dien pertsona helduen hurbiltasuna eskaintzen da, nerabeen pixkanakako emantzipazio prozesua ahalbidetzeko.

4. artikulua. Zerbitzuaren helburuak.

* Helburu nagusiak:

— Nerabezaroa bizitzaren aro garrantzitsua izanik, garaiaz gozatzeaz gain, nerabea herritar aktibo gisa jarduteko baliabideak, laguntza, orientazioa ematea, hau da, lortzea Zumaian herritar aktibo gisa jardutea.

— Aisialdiaz gozatzea modu aktiboan, partaidetza landuta, era sortzailean, osasungarrian eta ongizate emozionalari lagunduz.

— Euskara: hizkuntza normalizazioa bultzatzea, bai euskararen erabileran bai euskal nortasun eta kultura sustatuz.

— Autonomia garatzea, nor bere burua antolatu eta kudeatzeko gaitasuna lortzea.

— Neska eta mutilen arteko aukera berdintasuna bermatzea, bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, ohiko rolet sexuaren arabera ezartzen dituzten mugak izan gabe. Kontuan izango da Berdintasuna bermatzeko 1/2023 Legegintzako dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

— Adin bereko kideekin lotura egonkor, atsegin eta erreferentziazkoak sortzea eta sendotzea.

— Gizarteratze harremanak garatzea.

* Helburu zehatzak:

— Gaztegunea nerabeentzako zerbitzua, kuadrillen eta nerabeen arteko topagune izatea sustatu.

— Elkarbizitzaren eta errespetuaren balioak bultzatzea.

— Nerabeek aukeratutako zaletasunak sustatzea, sormena lantzea eta ekimenak bultzatzea.

— Nerabeen parte hartze aktiboa sustatzea bai zerbitzuaren funtzionamenduan zein Zumaiaiko ekimenetan. Herriko azpiegitura nahiz gizarte egiturak ezagutaraztea eta horietaz baliatzeak ohiturak sortzea. Zumaiaiko elkartegintza ezagutu eta beraiekin elkarlana sustatzea.

— Kudeatzeko zailak izan daitezkeen egoerak kudeatzeko baliabideak eskaini. Prebentzio orokorra landu.

III. KAPITULUA

HARTZAILEAK, KOKAPENA, SARBIDEA ETA ORDUTEGIAK

5. artikulua. Hartzaileak.

Zerbitzua 12-17 urte bitarteko (DBH1-Batxilergoa) Zumaia-ko nerabe guztiei zuzenduta egongo da. Zerbitzuak bi adin tarterekin egingo du lan, eta bakoitzari egokitutako eskaintza izango du: 12-14 eta 15-17.

Halaber, zuzeneko edota zeharkako hartzaileak izango dira nerabeen heziketan eta aisialdian ardura duten beste eragileak (gurasoak, irakasleak, kale hezitzaileak, herriko taldeak...).

6. artikulua. Kokapena, sarbidea eta ordutegiak.

6.1. Gaztegunea Kantauri plaza 13an dago.

mentar el lugar de la persona adolescente en la sociedad a través del trabajo, aprendizaje y fortalecimiento de sus capacidades personales y de sus vínculos sociales. La igualdad, la equidad, la diversidad y el euskera son principios o criterios del servicio. Teniendo en cuenta la proactividad, cercanía, personalización, seguimiento y prevención, se pretende satisfacer las necesidades de las personas adolescentes. Se ofrece la cercanía de las personas adultas que escuchan y comprenden a adolescentes para facilitar el proceso de emancipación gradual de las personas adolescentes.

Artículo 4. Objetivos del servicio.

* Objetivos generales:

— Que siendo la adolescencia una etapa importante de la vida, además de disfrutar de la época, se le faciliten recursos, apoyos, orientación para que el o la adolescente actúe como ciudadano o ciudadana activa o ciudadana activa en Zumaia.

— Disfrutar del tiempo libre de forma activa, participativa, creativa, saludable y contribuyendo al bienestar emocional.

— Euskera: impulsar la normalización lingüística, tanto en el uso del euskera como fomentando la identidad y cultura vascas.

— Desarrollar la autonomía, adquirir capacidad de autoorganización y autogestión.

— Garantizar la igualdad de oportunidades entre chicos y chicas para desarrollar sus capacidades personales y tomar decisiones, sin las limitaciones que los roles tradicionales imponen en función del sexo. Se tendrá en cuenta lo establecido en el Real decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

— Crear y consolidar vínculos estables, amables y referenciales con compañeros y compañeras de su misma edad.

— Desarrollar relaciones de inclusión social.

* Objetivos específicos:

— Promover que el Gaztegunea sea un punto de encuentro entre diferentes cuadrillas y adolescentes.

— Impulsar los valores de convivencia y respeto.

— Fomentar las aficiones elegidas por adolescentes, cultivar la creatividad e impulsar iniciativas.

— Promover la participación activa de adolescentes tanto en el funcionamiento del servicio como en las iniciativas de Zumaia. Dar a conocer y crear hábitos de uso de las infraestructuras y estructuras sociales del municipio. Conocer y colaborar con el asociacionismo de Zumaia.

— Ofrecer recursos para la gestión de situaciones que pueden ser difíciles. Trabajar la prevención en general.

CAPÍTULO III

PERSONAS DESTINATARIAS, UBICACIÓN, ACCESO Y HORARIOS

Artículo 5. Personas destinatarias.

El servicio estará dirigido a adolescentes de Zumaia de entre 12 y 17 años (DBH1-Bachiller). El servicio trabajará con dos franjas de edad, con una oferta adaptada a cada una de ellas: 12-14 y 15-17.

Asimismo, las personas destinatarias directas e indirectas serán otros agentes responsables de la educación y el tiempo libre de adolescentes (padres, madres, profesorado, educadores/as de calle, grupos del pueblo...).

Artículo 6. Ubicación, acceso y horarios.

6.1. El Gaztegunea está situado en la plaza Kantauri 13.

6.2. Doako zerbitzua eta sarbide librekoa da erabiltzaileen-tzat, antolatutako ekintza bereziak izan ezik, non kobratuko diren Udal ordenantzak dioenaren arabera.

6.3. Gazteguneak irekiera ordutegi hau izango du: astear-tetik igandera arte, arratsaldez. Nerabeek oporraldiak dituzte-nean, ordutegia malguagoa izango da eta egokituko da haien beharretara.

6.4. Udalak eskubidea izango du ordutegiak eta jarduerak aldatzeko, betiere denen onerako bada eta gainerako udal jar-dueren funtzionamendua egokirako.

IV. KAPITULUA

ERABILERA ETA ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

7. artikulua. Zerbitzuaren erabilera eta erabiltzaileen bete-beharrak.

Nerabeek izena eman beharko dute Gaztegunean parte har-tzeko, eta gurasoek/tutoreek sinatutako izena emateko orria aurkeztu beharko dute.

Nerabeak bisitan ere joan ahal izango dira, baina bi aldiz baino gehiagotan eginez gero, izena eman beharko dute.

7.1. Erabiltzaileek errespetuzko eta duintasunezko tratua izan beharko dute, bai hezitzaileekiko, bai Gazteguneko gaine-rako parte hartzaileekiko, eta baita bertan, sartzen den edozein pertsonarekiko ere (gurasoren bat, garbitzailea...).

7.2. Zerbitzuaren erabiltzaileek instalazioak, ekipamen-dua eta Gazteguneko gainerako materiala zaindu beharko dituz-te, eta haiek gaizki erabiltzetik sor daitezkeen hondatzeak sai-hestuko dituzte.

7.3. Lokalaren barruan ezingo dira bizikleta, baloi, patin eta patineterik erabili.

7.4. Gaztegunearen barruan ezingo da erre edo alkoholik edan, ezta sarreraren inguruan ere. Jateko aukera ez da ukatu-ko, baina lekua txukun mantendu beharko da.

7.5. Norberaren gauzak zaintzea gomendatzen da, izan ere Gazteguneak ez ditu bere gain hartuko lapurretak eta galerak.

7.6. Gaztegunean liskarrak edo kalteak eragiten dituzten erabiltzaileekin, edo gainerako erabiltzaileekiko eta langileekiko behar den errespetua agertzen ez dutenekin, Udalak egokitzat jotzen dituen neurriak hartu ahaliko dira, Gazteguneko funtzio-namendu egokia bermatze aldera.

7.7. Errespetuzko tratua sustatuko da, bazterkeriarik egin gabe (jatorria, generoa, sinesmena, gaitasuna...) eta ez da jarre-ra matxistarik onartuko.

7.8. Pertsona bakoitzak bere harremanak libreki izateko eskubidea du, eta horiek errespetatuko dira.

7.9. Besteen pribatutasuna eta intimitatea errespetatuko dira (fisikoa, psikikoa eta erabakiena), eta konfiantzazko harre-mana eskainiko da.

7.10. Ez da inoren irudirik hartuko (argazkiak, bideoak...) haren baimenik gabe.

7.11. Hizkuntzaren erabilera inklusiboa: ez da onartuko hizkuntzaren erabilera sexista ezta homofobia ere, eta euskara izango da erreferentziazko hizkuntza.

7.12. Zerbitzuaren erabilera egokia bermatzeko, eta funtzionamenduaren jarraipena egiteko, batzordea eratuko da Gaz-tegunean. Batzordea Gazteguneko hezitzaileek, babes ordezkariak eta Udal Gazteria teknikariak osatuko dute, eta erabakita-koa zinegotziarekin partekatuko dute.

6.2. Es un servicio gratuito y de libre acceso para las per-sonas usuarias, a excepción de las actividades especiales que se organicen, las cuales se cobrarán según lo establecido en la ordenanza municipal.

6.3. El Gaztegune tendrá el siguiente horario de apertura: de martes a domingo, por la tarde. Cuando adolescentes tengan periodos vacacionales, el horario será más flexible y se adapta-rá a sus necesidades.

6.4. El Ayuntamiento tendrá derecho a modificar los hora-rios y actividades siempre que redunde en beneficio de todas las personas usuarias y para el buen funcionamiento del resto de actividades municipales.

CAPÍTULO IV

USO Y OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS USUARIAS

Artículo 7. Uso del servicio y obligaciones de las personas usuarias.

Para participar en el Gaztegune, las personas adolescentes deberán inscribirse y presentar la hoja de inscripción firmada por madre/padre/personas tutoras.

También podrán ir de visita, pero en caso de hacerlo por se-gunda vez, deberán formalizar la inscripción.

7.1. Las personas usuarias deberán tener un trato respe-tuoso y digno tanto hacia las personas educadoras como hacia el resto de participantes en el Gaztegune, así como hacia cual-quier persona que acceda a él (alguna madre o padre, personal de limpieza...).

7.2. Las personas usuarias del servicio deberán cuidar de las instalaciones, equipamientos y demás material del Gazte-gune, evitando los deterioros que puedan derivarse de su mal uso.

7.3. En el interior del local no podrán utilizarse bicicletas, balones, patines ni patinetes.

7.4. No se permitirá fumar o beber alcohol en el interior del Gaztegune ni en las inmediaciones de la entrada. No se ne-gará la posibilidad de comer, pero el lugar deberá mantenerse en orden.

7.5. Se recomienda cuidar los efectos personales, ya que el Gaztegune no se hará cargo de los robos y pérdidas.

7.6. Con las personas usuarias que causen altercados o daños en el Gaztegune, o que no muestren el debido respeto hacia el resto de personas usuarias y trabajadoras, se podrán adoptar las medidas que el ayuntamiento considere necesarias, para ga-rantizar el correcto funcionamiento del Gaztegune.

7.7. Se promoverá un trato respetuoso y no discriminatorio (origen, género, creencia, capacidad...) y no se aceptarán con-ductas machistas.

7.8. Cada persona tiene derecho a mantener libremente sus relaciones, que serán respetadas.

7.9. Se respetará la privacidad e intimidad de las otras personas (física, psíquica y de las decisiones), y se ofrecerá una relación de confianza.

7.10. No se tomarán imágenes de nadie (fotografías, ví-deos...) sin su consentimiento.

7.11. Uso del lenguaje inclusivo: no se admitirá el uso de un lenguaje sexista ni homófobo y la lengua de referencia será el euskera.

7.12. Para garantizar el buen uso del servicio y el segui-miento de su funcionamiento, se constituirá una comisión en el Gaztegune. La comisión estará formada por las personas edu-cadoras del Gaztegune, la persona delegada de protección y la Técnica municipal de Juventud, que compartirán lo acordado con la concejalía.

Arau haustea gertatuz gero, Gaztegunean sortuko den Bartzordeak txostena egingo du gertakarien larritasuna zehazteko, eta azken erabakia dagokion organoak hartuko du. Udalak erabakia jakinaraziko dio interesdunari.

7.13. Orokorrean, Gaztegunean adostutako Jokabide kodea errespetatuko da.

V. KAPITULUA

ZEHAPEN ARAUBIDEA

8. artikulua. Kalte ordainak.

Gazteguneko erabiltzaile batek nahita kalte materialak eragiten baditu, Udalak konponketaren edo birjarpenaren kostuaren % 100 eskatuko dio amari, aitari edo tutoreari.

9. artikulua. Arau hauste motak.

* Arau hauste motak:

Araudi honetan edo Zumaia Udalak berau aplikatzeko ematen dituen jarraibideetan xedatutakoa ez betetzea arau hauste administratibo zehagarria da.

Barne araubideko arau horiek modu larrian urratzen dituzten erabiltzaileak instalazioetatik kanporatu ahal izango dira, kautelaz eta berehala, hargatik eragotzi gabe udal arduradunek kasuan kasuko zehapenak ezartzea.

Gerta daitezkeen arau haustea arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

— Arau hauste oso larriak izango dira:

1. Arau hauste larriak behin eta berriz egitea.
2. Instalazioak, lagatako materialak eta horretarako emandako baimena, helburu espezifikoak ez diren beste helburu batzuetarako erabiltzea.
3. Zerbitzuaren erabiltzaileen eta/edo arduradunen aurka hitzeko erasoak eta/edo eraso fisikoak.
4. Zerbitzuaren erabiltzaileen eta/edo arduradunen errespetuaren, ohorearen eta duintasunaren aurkako jarduerak.
5. Instalazioaren barruko irudiak eta erabiltzaileak eta/edo zerbitzuaren arduradunak grabatzea eta/edo zabaltzea.
6. Instalazioan bertan eta sustatutako edozein jardueraren bitartean erretzea edo edozein droga mota kontsumitzea.
7. Norberarentzat eta gainerako erabiltzaileentzat arrisku-tsua den edozein jarduketara.

— Arau hauste larriak izango dira:

1. Hiru hutsegite arin edo gehiago egitea.
2. Lagatako instalazioak edo materialak nahita hondatzea edo horiek zaintzean eta kontserbatzean zabarkeria larria erakustea.
3. Zerbitzuaren edo jardueraren arduradunen jarraibideak behin eta berriz ez betetzea.
4. Jarduerak behar bezala egitea eragozten duen edozein jokabide edo jarrera, edo berdintasunaren, inklusioaren, errespetuaren eta elkartasunaren balioak kontuan hartuta, espazioan bizikidetzak egokia oztokatzen duena.

— Arau hauste arinak izango dira:

Arau hauste arintzat hartuko dira zerbitzua eta/edo berori erabiltzen duten pertsonak larriki kaltezen ez dituzten eta larritzat edo oso larritzat jotzen ez diren gaiekin lotutako ekintza puntualak.

En caso de infracciones, la Comisión que se cree en el Gaztegune hará un informe para especificar la gravedad de los hechos y la última decisión la tomará el órgano pertinente. El Ayuntamiento notificará la decisión a la persona interesada.

7.13. En general, se respetará el Código de Conducta consensuado en el Gaztegune.

CAPÍTULO V

REGIMEN SANCIONADOR

Artículo 8. Indemnizaciones.

En caso de que una persona usuaria del Gaztegune cause daños materiales de forma intencionada, el ayuntamiento le requerirá a la madre, padre o a la persona tutora el 100 % del coste de la reparación o reposición.

Artículo 9. Tipos de infracciones.

* Tipología de infracciones:

El incumplimiento de lo dispuesto en esta normativa o en las instrucciones que en orden a su aplicación dicte el Ayuntamiento de Zumaia constituye infracción administrativa sancionable.

Las personas usuarias que incumplan de modo grave estas normas de régimen interno podrán ser expulsadas de las instalaciones, de forma cautelar e inmediata, sin perjuicio de la imposición de las sanciones oportunas, por parte de las responsables municipales.

Las infracciones que puedan producirse se clasifican en leves, graves y muy graves.

— Se considerarán infracciones muy graves:

1. La reiteración en la comisión de faltas graves.
2. La utilización de las instalaciones, materiales cedidos para fines distintos de los que constituyen su objeto específico, y su consiguiente permiso concedido.
3. Las agresiones verbales y/o físicas a las personas usuarias y/o responsables del servicio.
4. Las actuaciones contrarias al respeto, honor y dignidad de las personas usuarias y/o responsables del servicio.
5. Grabar y/o difundir imágenes del interior de la instalación y sus personas usuarias y/o responsables del servicio.
6. Fumar o consumir cualquier tipo de droga en el interior de la instalación y durante el desarrollo de cualquiera de las actividades impulsadas.
7. Cualquier actuación que implique riesgo para una misma y para el resto de las personas usuarias.

— Se considerarán faltas graves las siguientes:

1. La comisión de tres o más faltas leves.
2. El deterioro intencionado o la negligencia grave en el cuidado y conservación de las instalaciones o materiales cedidos.
3. La reiterada desobediencia a las instrucciones de las personas responsables del servicio y/o actividad.
4. Cualquier conducta o actitud que interfiera en el correcto desarrollo de actividades o que dificulte la correcta convivencia en el espacio atendiendo a los valores de igualdad, inclusión, respeto y solidaridad.

— Se considerarán faltas leves las siguientes:

Tendrán la consideración de infracciones leves aquellos actos puntuales sobre cuestiones que no dañan ni perjudican seriamente el servicio y/o a las personas que hacen uso del mismo y que no merezcan la calificación de graves o muy graves.

10. artikulua. Zehapenak.

Zehapena ezartzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: arau hauslearen intentzionalitatea, faltaren kalte ekonomikoa, arau haustearen nabaritasuna eta garrantzi publikoa, eta maila-katzeko beste irizpide objektibo batzuk.

Araudi honetan jasotako arau hausteen erantzule zuzenak arau hausteen egile materialak izango dira, egitez edo ez-egitez egindakoak, egotzi ezineko kausaren bat dagoen kasuetan izan ezik; kasu horretan, gurasoak, tutoreak edo legezko zaintza dutenak izango dira erantzule.

Lagatako instalazioetan edo materialetan sortutako kalte-galeren erantzulea narriadurak eragin dituen pertsona izango da.

Araudi honetan aurreikusitako arau haustea eta zehapenak, arinak, larriak edo oso larriak izan, hiru hilabete, sei hilabete edo urtebeterra preskribatuko dira, hurrenez hurren.

Arau hausteen preskripzio epea arau haustea egin direnetik aurrera zenbatuko da, eta zehapenena, arau haustea ezarri dituen ebazpena irimok bihurtu denetik.

Zehapenak zehapen kategoriatan bereko kasu bat edo gehiago bildu ditzakete.

Arau hausteei ezarriko zaizkien zehapenak honako hauek izango dira:

— Arau hauste arinak egiteagatik:

1. Ohartarazpena.
2. Sei (6) eta hogeita hamar (30) euro bitarteko isuna, gaizki erabiltza materiala eta/edo gunea kalteagatik.
3. 15 egun naturaleko epean guneetik kanporatzea.

— Arau hauste larriak egiteagatik:

1. Hogeita hamar (30) eta ehun eta berrogeita hamar (150) euro bitarteko isuna, gaizki erabiltza materiala eta/edo gunea kalteagatik.
2. Arau haustea egin den unean bertan Gaztegunetik kanporatzea.
3. 6 hilabetez Gaztegunean sartzeko debekua.

— Arau hauste oso larriak egiteagatik:

1. Ehun eta berrogeita hamar (150) eta seiehun (600) euro bitarteko isuna, gaizki erabiltza materiala eta/edo gunea kalteagatik.
2. Urtebetetik 5 urtera bitartean Gaztegunean sartzeko debekua.

11. artikulua. zigortzeko ahalmena.

Zehapenak dagokion espedientearen egin ondoren bakarrik ezarri ahal izango dira, eta espediente hori Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legearen xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

Alkateari edo, hala dagokionean, berak eskuordetzen duen udalkideari dagokio zehapenak ezartzea.

VI. KAPITULUA

BERDINTASUN ETA HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

12. artikulua. Berdintasun irizpideak.

Zerbitzuak genero ikuspegia txertatuta izango du.

Hezitzaileek hizkera ez-sexista erabili beharko dute kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, publicitate, irudi edo material guztian eta nerabeekiko tratuan, eta saihestu egin be-

Artículo 10. Sanciones.

Para determinar la sanción que se imponga se tendrán en cuenta la intencionalidad de la persona infractora, el perjuicio económico de la falta, la notoriedad y trascendencia pública de la infracción y otros criterios de graduación objetivos.

Serán responsables directos/as de las infracciones contenidas en la presente normativa los/as autores/as materiales de las infracciones, sea por acción u omisión, excepto en los supuestos en los que concorra alguna causa de inimputabilidad, en cuyo caso responderán por ello padres/madres, tutores/as o aquellas que tengan la custodia legal.

La persona causante de deterioros en las instalaciones o materiales cedidos responderá de los daños y perjuicios ocasionados.

Las infracciones y sanciones previstas en la presente Normativa prescribirán, según sean leves, graves o muy graves, a los tres meses, seis meses o un año, respectivamente.

El plazo de prescripción de las infracciones se computará desde que se hubieran cometido, y el de las sanciones desde que hubiera adquirido firmeza la resolución que las imponga.

Las sanciones pueden recoger uno o más supuestos de una misma categoría sancionadora.

Las sanciones que se impondrán a las personas infractoras serán las siguientes:

— Por comisión de infracciones leves:

1. Apercibimiento.
2. Multa de seis (6) a treinta (30) euros por dañar el material y/o espacio ante un mal uso.
3. Expulsión del espacio por 15 días naturales.

— Por comisión de infracciones graves:

1. Multa de treinta (30) a ciento cincuenta (150) euros por dañar el material y/o espacio ante un mal uso.

2. Expulsión del Gaztegunee en el momento de la acción.

3. Prohibición de entrada en el Gaztegunee por un período de 6 meses.

— Por comisión de infracciones muy graves:

1. Multa de ciento cincuenta (150) a seiscientos (600) euros por dañar material y/o espacio.

2. Prohibición de entrada en el Gaztegunee por un período de uno (1) a cinco (5) años.

Artículo 11. Potestad sancionadora.

Las sanciones que procedan solo podrán imponerse previa la instrucción del correspondiente expediente, que será tramitada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 1/2023 de 16 de marzo de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas.

Corresponderá a quien ostente la Alcaldía y en su caso al miembro de la Corporación en quien delegue la imposición de sanciones.

CAPÍTULO VI

CRITERIOS DE IGUALDAD Y LINGÜÍSTICOS

Artículo 12. Criterios de Igualdad.

El servicio tendrá incorporada la perspectiva de género.

Las personas educadoras deberán utilizar un lenguaje no sexista en toda la documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, y en

harko dute emakumeen irudi diskriminatzailea edo estereotipo sexistak, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta genero rol eta identitateen aniztasunaren balioak dituen irudia sustatu beharko dute.

Ez da jokabide matxistarik onartuko.

13. artikulua. Hizkuntza irizpideak.

Zerbitzuak hizkuntza ikuspegia zainduko du jarduera guztietan eta Euskara Sailarekin koordinatuko da irizpideak ondo betetzen direla egiaztatzeko.

Hezitzaileek euskara erabiliko dute kartel edo idatzietan, eta nerabeekiko harremanetan ere bai. Irteerak eta ekitaldiak euskaraz egingo dira. Gurasoei begirako jakinarazpen eta bile-retan baliabideak aurreikusiko dira euskara erabiltzeko eta ulertzen ez dutenen parte hartzea errazteko.

VII. KAPITULUA

ERREKLAMAZIOAK

14. artikulua. Erreklamazioak.

1. Gaztegunearen erabiltzaileei dagozkien eskubideen bermeen ondorioetarako, arau honen aplikazioari buruzko erreklamazioak izapidetu ahal izango dituzte, eta, horretarako, herritarren ohiko komunikazio bideak erabiliko dituzte erreklamazioak erregistratzeko.

2. Erreklamazio guztiei idatziz erantzungo zaie, garaiz eta behar den moduan, edo, hala badagokio, toki berean, ahoz.

VIII. KAPITULUA

AZKEN XEDAPENAK

15. artikulua. Urteroko balorazioa.

Ondoren, urtero-urtero, ordenantza honen balorazioa egingo da, Gaztegunearen osatutako batzordean.

16. artikulua. Arau aplikagarriak.

Araudi honetan aurreikusi edo jaso ez den guztian, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Erregelamendu xedapenei buruzko testu bategina onartu zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuan, Euskadiko Toki erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta haren Administrazio Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean xedatutakoa aplikatuko da eta, osagarri gisa, administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

17. artikulua. Indarrean sartzea.

Ordenantza hau indarrean jarriko da testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoren, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igaro ondoren bertako 70.2 artikuluan xedatutakora bidalita.

Zumaia, 2026ko abuztuaren 3a.—Iñaki Ostolaza Esnal, alkatea. (5392)

el trato con adolescentes, y deberán evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

No se admitirán conductas machistas.

Artículo 13. Criterios lingüísticos.

El servicio tendrá en cuenta la perspectiva lingüística en todas las actividades y se coordinará con el Departamento de Euskera para verificar el cumplimiento de los criterios.

Las personas educadoras utilizarán el euskera en sus carteles o escritos, así como en sus relaciones con los/as adolescentes. Las salidas y actos se realizarán en euskera. En las comunicaciones y reuniones dirigidas a los padres y madres se preferirán recursos para el uso del euskera y para facilitar la participación de quienes no lo entiendan.

CAPÍTULO VII

RECLAMACIONES

Artículo 14. Reclamaciones.

1. A los efectos de las garantías de los derechos que asisten a las personas usuarias del Gaztegunear, podrán tramitar sus reclamaciones a la aplicación de esta norma mediante el registro de las mismas por los canales habituales de comunicación ciudadana.

2. Toda reclamación se procederá a contestar por escrito en tiempo y forma o, si fuere el caso, en el mismo lugar verbalmente.

CAPÍTULO VIII

DISPOSICIONES FINALES

Artículo 15. Valoración anual.

Posteriormente, anualmente, se realizará una valoración de esta ordenanza en la comisión creada en el Gaztegunear.

Artículo 16. Normas aplicables.

En lo no previsto o previsto en el presente Reglamento, será de aplicación lo dispuesto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y en el Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones reglamentarias, en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi y en su Ley 39/2015, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, con carácter supletorio, el resto de normas de derecho administrativo y, en su defecto, las normas de derecho privado.

Artículo 17. Entrada en vigor.

La presente ordenanza entrará en vigor una vez publicado el texto íntegro en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, con remisión de lo dispuesto en el artículo 70.2 del mismo.

Zumaia, a 3 de agosto de 2026.—El alcalde, Iñaki Ostolaza Esnal. (5392)